



GAZTAROKO ARTRITIS IDIOPATIKOA GAI

GAI, ZER DA?

Gaixotasun kroniko bat da. Artikulazio bateko edo batzuetako inflamazio-agerraldiak eta/edo mina agertzen dira. Adin guztietako haurrei eragin diezaike, urtea baino lehen hasi eta nerabegarora arte.


Gaztaroko Artritis Idiopatikoa mota edo forma desberdinak daude, erasandako artikulazio-kopuruaren eta beste ezaugarri batzuen arabera, hala nola entesitisaren (tendoi-hezur loturaren inflamazioa), sukarraren, azaleko agerpenen, eta abarren presentzia.

ZERGATIK SORTZEN DA?

Gaixotasun autoimmune bat da. Gaztaroko Artritis Idiopatikoa duten pazienteetan sistema immunitarioak, infekzioen aurrean babesteko arduradunak, modu anomaloan erantzuten du, artikulazioei eraso eginez. Dena dela, oraindik ezezagunak dira gaixotasun hau eragiten duten mekanismo zehatzak.

ZER GERTATZEN ZAIE ARTIKULAZIOEI?

Artikulazioek estaldura bat dute, mintz sinobiala. Horrek likido-kantitate txiki bat sortzen du mugimendua errazteko. Gaztaroko Artritis Idiopatikoa duten pazienteetan mintz sinobiala lodituta egoten da, likido gehiegi sortzen du (isuri artikularra), eta horrek sintomak eragiten ditu.



NOLA AGERTZEN DA?

Gaztaroko Artritis Idiopatikoa artikulazio bateko edo batzuetako inflamazio, min eta mugikortasunaren mugarekin agertzen da. Oro har, sintomak nabarmenagoak dira goizez, eta atseden hartu ondoren.

Haurrak mina eta artikulazioen sorgortzea adieraz dezake, edo herretasunarekin, zenbait mugimendu egiteari uko eginez edo artikulazioa erdifleksionatuta edukiz agertu. Artikulazioaren inflamazioa kanpoaldean ikusteko modukoa izango da edo ez, artikulazioaren arabera eta isuriaren kantitatearen arabera.

ZEIN DA TRATAMENDUA?

Eskura dauden tratamenduek ez dute Gaztaroko Artritis Idiopatikoa sendatzen, baina agerraldiak kontrolatzeko aukera ematen dute, bai eta min iraunkorrak gertatzea saihesteko aukera.

Tratamendua Gaztaroko Artritis Idiopatikoa motaren eta bere sintomen arabera izango da. Formarik arinenak antiinflamatorioekin kontrola daitezke (adib. ibuprofenoa) eta kortikoideekin. Beste kasu batzuetan sistema immunitarioa modulatzeko medikamentuak beharko dira.

JARDUERA FISIKOA GAZTAROKO ARTRITIS IDIOPATIKOKO KASUETAN

Gaztaroko Artritis Idiopatikoa duten haurrek gorputz-eriketak egin behar dituzte bizitza osasungarriagoa izateko. Kirola eta luzamenduak oso garrantzitsuak dira muskulatura eta handituta egon diren artikulazioen mugikortasuna berreskuratzeko.

Dena dela, une jakin batzuetan (uneko agerraldi artikularragatik edo duela gutxiagoatik), mingarri diren eriketak edo handitutako artikulazioan estres mekanikoa sortzen dutenak mugatzea gomendatuko da. Horrelakoetan honako eriketek lagunduko diete: igeriketa, bizikleta edo luzamenduak.

GAZTAROKO ARTRITIS IDIOPATIKOA IKASTETXEAN

Artritis duten haur edo gazte gehienak oso ongi moldatzen dira haien egunerokoan. Hala ere, zurruntasunaren, mugikortasuna txikitzearen edo minaren eraginez, zailtasun zehatz batzuk izan ditzakete, eta irakasleek kontuan hartu behar dituzte.

Informazio gehiago behar izanez gero, Gaztaroko Artritis Idiopatikoa buruzko Gida Laburreko jarduteko protokoloa kontsultatu.

<http://www.goo.gl/wrAFVT>

Beste web-orri interesgarri batzuk:

- ERREUMATOLOGIA PEDIATRIKOKO ESPAINIAKO ELKARTEA (SERPE)
www.reumaped.es
- PAEDIATRIC RHEUMATOLOGY INTERNATIONAL TRIAL ORGANISATION
www.printo.it
- PAEDIATRIC RHEUMATOLOGY EUROPEAN SOCIETY
www.pres.eu

